



**Elikadura burujabetza
eta feminismoa eskutik**




**Soberanía alimentaria
y feminismo, de la mano**

Etxaldeko Emakumeak



ECUADOR ETXEA    





Nor gara?

Etxaldeko Emakumeak hainbat soslaietako emakumeen talde irekia da, emakume baserritarrak, landa-eremuko emakumeak eta elikadura-burujabetzaren proposamenarekin bat egiten duten emakumeak

Nekazaritzan eta abeltzaintzan dihardugun emakumekok hainbat soslai eta bizimodu ditugu, eta aniztasun hori gu aberasteko aukera bat da.

Gure identitatearen muinean emakume baserritarrak gaude, eta identitate bikoitz horretatik, emakume eta baserritar garen aldetik, elikadura-burujabetzaren eraikuntzan gure ekarpena egin nahi dugu ikuspegi feministatik. Horren ildoan, Elikadura-burujabetzaren alde borrokatzen diren agroekofeminista gisa definitzen dugu gure burua. Etxalde-Nekazaritza Iraunkorra mugimenduaren barruan espazio autonomo gisa antolatu gara, harekin borrokarako oinarrizko proposamena partekatzen dugulako eta bertan parte hartzen dugulako. Urteak daramatzagu matraka ematen, poliki-poliki ibiltzen, aliantzak sortzen ahalegintzen eta urrats txiki baina sendoak ematen.

¿Quiénes somos?

Entendemos Etxaldeko Emakumeak como un grupo abierto de mujeres de diversos perfiles, baserritarras, mujeres rurales y mujeres ligadas a la propuesta de la soberanía alimentaria

Consideramos que las mujeres en la agricultura y ganadería tenemos hoy en día diversos perfiles y formas de vida, y creemos que esta diversidad es una oportunidad para enriquecernos.

En el centro de nuestra identidad estamos las mujeres baserritarras y desde esta doble identidad, como mujeres y como baserritarras, queremos contribuir a la construcción de la soberanía alimentaria desde una perspectiva feminista. En ese sentido, nos definimos como agroecofeministas que luchamos por la Soberanía Alimentaria. Nos construimos como un espacio autónomo dentro del movimiento Etxalde – Nekazaritza Iraunkorra con el que compartimos la propuesta básica de lucha y en el que participamos. Llevamos unos años dando guerra, caminando despacio, intentando crear alianzas y dar pasitos pequeños pero firmes.



Feminismoan Elikadura-burujabetza txertatzea

1

Nekazarien mugimenduan feminismoa txertatzea

2

Tenemos muchos sueños, y para conseguirlos, nuestro razón de ser es contagiar en dos sentidos;

1

Contagiar de SBA al feminismo

2

Contagiar de feminismo al movimiento campesino

Elikadura-burujabetzaren proposamena kutsatu nahi diegu erakunde feministei, jardun agroekologikoak eta landa-eremu muko eragina kutsatu nahi dizkiegu.

Gure iritziz, elikadura-burujabetzak gizarte-borroka guztietan eduki behar du presentzia, borroka feministan batez ere; bizitza erdigunean kokatuko duen ekonomiaren aldeko apustua egiten badugu, elikadura-prozesuak funtsezkoak dira gizarte-aldaketarako.

Nekazarien erakunde eta mugimenduak feminismoz kutsatzea ere nahi dugu. Gure ikuspegi ekofeministarekin ekarpenak egin, kanpora begirako diskurtsuaz gain, mugimendu horien jardunak ere ikuspegi feminista kontuan har dezan azterketak eta planak egitean, erabakiak hartzean, etab. Gure ustez, elikadura-burujabetza ez delako erabat eraldatzailea izango parametro feministak kontuan hartzen ez baditu, eta horrek aldaketa kontzientea izan behar du; inertiak, bes-tela, rol eta portaera patriarkaletara eramaten gaitu eta.

Queremos contagiar a las organizaciones feministas de la propuesta de la soberanía alimentaria, de las prácticas agroecológicas y de la influencia rural.

Consideramos que la soberanía alimentaria tiene que estar presente en todas las luchas sociales, pero especialmente en la feminista; si apostamos por una economía que coloca la vida en el centro, los procesos de alimentación son una clave importante para la transformación social.

Queremos también contagiar de feminismo a las organizaciones y movimientos campesinos. Aportar con nuestra visión ekofeminista para que no sólo el discurso hacia afuera sino también las prácticas de estos movimientos incluyan el enfoque feminista a la hora de analizar, planificar, tomar decisiones... Porque consideramos que la soberanía alimentaria no será completamente transformadora si no incluye parámetros feministas, y esto tiene que ser un cambio consciente, ya que la inercia nos lleva hacia roles y comportamientos patriarcales.

Aldi berean, emakumeentzako espazio honetan, pentsatzen eta sakontzen jarraitzen dugu, elikadura-burujabetza feministarako eta zaintza ikusaraziko eta balioetsiko duten jardunetan oinarritutako agroekologiarako eta desmerkantilizazioarako benetako proposamenak eraikitzen. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua iruditzen zaigu erabakitzeke eremuetan parte hartzea; eta aldi berean, ezinbestekoa iruditzen zaigu beste sektore batzuekin ere aliantzak lantzen jarraitzea”

La Via Campesinaren Elikadura Burujabetzaren definizioan oinarritzen gara, zeinetan mundu osoko kide nekazariak parte hartu zuten, eta definizio hori zabaltea eta beste ikuspegi batzuk txertatzea da gure xedea. Horrela, proposamena aberastuz, edukiak eta xehetasuna definituz, askotariko zapalkuntza-sistemaren kontrako borroka hainbat sektoretatik bideratzeko eraginkorragoa izango dela uste dugu; baina dibertsitateak ere kontuan hartu behar dira.

Amets horietan bidelagun izateko, La Via Campesinako emakumeei begiratzen diegu, Latinoamerikako komunitateetako feministei, feminismo beltzari, feminismo dekolonialari, indigenari... Eta bereziki Ekonomia Feminista eta Ekofeminismoko mugimenduei. Ekofeministen irakurketa partekatzen dugu: egungo sistemaren oinarria natura eta emakumeen gorputzak dira, eta ezinbestekoa da bata zein bestea askatzea, eta bat egiten dugu ekonomia feministaren proposamenarekin: sistemaren erdigunetik dirua kendu eta bertan bizia jartzea. Horrek prozesu agroekologikoen ezaugarri gehiago definitzera eramaten gaitu.


Feminismoa desestigmatizatzen lagundu nahiko genuke, gizarte osoan eta bereziki landa-eremuan; emakume agroekofeministaren identitate kolektibotik abiatuz, ziur gaudelako ikuspegi horrek potentzialtasun eraldatzaile handiak dituela eta nekazaritza-sektoreari atxikitzen ari diren emakumeen eredu berriak ordezkatzeko dituela. Gainera, beste emakume ekoizle eta/edo baserritarrengana ere hurbildu nahi dugu; euren burua feministatzat jo gabe ere, emakumeen espazioetan parte hartzeko gogoia dutelako eta euren bizipenetatik bestelako ikuspegi eta beharrezinak ekar ditzaketelako.


Al mismo tiempo, en este espacio de mujeres, seguimos pensando y profundizando, construyendo propuestas reales para una soberanía alimentaria feminista, una agroecología basada en prácticas que visibilicen y valoricen los cuidados y una construcción de propuestas concretas de desmercantilización. Para todo esto nos parece importante nuestra participación en ámbitos de decisión; y a su vez, nos parece indispensable seguir tejiendo alianzas con diferentes sectores.

Nos basamos en la definición de Soberanía Alimentaria de La Vía Campesina, en la que también participaron compañeras campesinas de todo el mundo, y buscamos ampliarla y sumar otras miradas. Así, enriqueciendo la propuesta, definiendo contenidos y detalles, creemos que nos será más eficaz para la lucha desde diferentes sectores, pero incluyendo las diversidades, contra un sistema de opresiones múltiples.

Para acompañarnos en esos sueños, nos fijamos en las mujeres de la Vía Campesina, en las feministas comunitarias de América Latina, en el feminismo negro, en el decolonial, en el indígena... Y especialmente en los movimientos de Economía Feminista y Ecofeminismo. Compartimos la lectura de la ecofeministas, el sistema actual se sostiene sobre la naturaleza y los cuerpos de las mujeres y es imprescindible liberar ambos; y nos sumamos a la propuesta de la economía feminista de retirar el dinero del centro del sistema para colocar la vida. Esto nos lleva a definir más características de los procesos agroecológicos.

Nos gustaría contribuir a desestigmatizar el feminismo de la sociedad en general y del mundo rural en particular, desde nuestra identidad colectiva de mujeres agroekofeministas, convencidas de que esta mirada tiene muchas potencialidades transformadoras y que representa a nuevos modelos de mujeres que se están incorporando al sector agrario. Además, queremos acercarnos a otras mujeres productoras y/o baserritarras que, no considerándose feministas, tienen ganas de participar en espacios de mujeres y pueden aportar otras visiones y necesidades desde sus vivencias propias.





Sistema agroindustrialaren beste ondorio batzuk

**Sistema agroindustrialak nekazaritzako
ekoizpenetan dituen eraginen eta horren
ondorio kaltegarrien azterketa geure
egiten dugu**

Azterketa honetan, harremanetan eta ekoizpen-sisteman dituen ondorioak gehitu nahi ditugu, biziak aurrera egin dezan eragozten du eta ezkutuan geratu ohi baita.

Kapitalismoa landa-eremura iritsi zenean pertsonen arteko harremanak errotik aldatu ziren, baina bai eta eguneroko beste elementu batzuekiko harremana ere. Ez dugu iragana idealizatu nahi, eta badakigu patriarkatua nahieran zebilela landa-eremuko herri eta auzoetan iraultza berdea lur horietara iritsi aurretik. Baina kapitalismoak eta patriarkatuak bat egin zuten, biak aldatu ziren eta gaur egun bizi dugun askotariko zapalkuntza sistema sortu zuten.

Las otras consecuencias del sistema agroindustrial

**Hacemos nuestro el análisis de los
impactos del sistema agroindustrial en las
producciones campesinas y sus fatídicos
resultados**

Queremos sumar a este análisis los efectos en las relaciones y el sistema reproductivo, aquel que permite que la vida siga adelante, y que tiende a quedar invisibilizado.

La llegada del capitalismo al campo transformó profundamente las relaciones entre las personas, pero también con otros elementos diarios. No idealizamos el pasado y sabemos que el patriarcado campaba a sus anchas en los pueblos y barrios rurales antes de que la revolución verde tocara esas tierras. Pero el capitalismo entró en simbiosis con ese patriarcado, los dos cambiaron y crearon el sistema de opresión múltiple en el que vivimos hoy en día.

Ondo ulertzeko adibide zehatzagoak emango ditugu:

- Sistema agroindustrialak pertsonen eta lanaren arteko harremana aldatu zuen, eta onura ekonomikoak ekar ditzakeen gauza gisa konpartimentatu eta kategorizatu zuen. Horrek lanaren sexuaren arabera banaketa areagotu zuen eta gizonen eta emakumeen arteko lan partekaturako denbora murriztu; aldi berean, emakumeen lan-karga handitzen zuen (lanaldi hirukoitza). Emakumeen gizonetik mendekotasuna handitu zuen; nekazaritza industrial "gizonena da, eta emakumeak "...rentzat lan egiten dute", besterik ez. Bosterea diruan dago, hortaz, ekoizpen-lana egiten duenak dauka erabakitze gaitasun handiagoa; aldi berean, gauza txikiak gauza mantsok, emakumeen ezagutzak... balioa galtzen ari dira.
- Horrek ondorio bikoitza dauka: alde batetik, lan eta espazio kolektiboak desagertzean emakumeen isolamendua handitu egiten da; eta bestetik, etxeko espaziotik irtetera hiri-gune handiagotara joatera bultzatzen ditu, ikastera eta kanpoan lan egitera, espazio horietan askeago sentitzen direlako.
- Neska-mutikoekiko eta pertsona helduekiko harremana ere aldatu egiten da. Nola edo hala inbisibilizatu egiten dira, eta lehen betetzen zituzten zereginetatik kanpo uzten dira; nagusiek enbarazu egiten dute produktiboak ez direlako, eta ez dira kontuan hartzen haien ezagutzak edo gaitasunak. Eta txikiei ezagutza horiek beroriek ukatzen zaizkie, lurretik eta elikaduratik desbinkulatu egiten dira.
- Gero eta integrazio txikiagoa duten harreman horien ondorioz, ez dago zaintzarako tokirik eta gero eta maizago, zeregin horiek kanpora bideratzen dira. Bada continuum bat, non emakumeek zeregin horietaz arduratzen jarraitzen duten, baina lehen etxeokoa ziren, eta orain langileak dira, askotan oso baldintza miserabletan lan egiten dutenak, gainera. Aldatu ez den beste gauza bat inbisibilitatea baita, hori eta zaintzarako lan-orduen aintzatespen txikia.
- Familiaren arteko harremanak eta mundua ikusteko moduak ere aldatu egin ziren. Ez dugu uste lehen ere dena lan kolektiboa eta elkartasuna zirenik, baina sistema honek lehiakortasunean oinarrituriko harremanak sakondu ditu, zeinek bere buruari begiratzea, alegia. Lan-esplotaziorako modu berriak ere ekarri ditu, batez ere landa-eremuetako langile etorkinen kasuan. Eta egoera hori errepikatu egiten da nazioartean, planetaren alde bateko zein besteko ekoizleak aurrez aurre jarrita, lehiakortasun terminoetan.

Halako zentzugabekeriak zerbait ekarri badu, nekazarien erreakzionatzeko gaitasuna, elkartasunezko harreman internazionalistak eta sistemaren kontrako posizio globalak izan dira.

- Pertsona kontsumitzaileekiko harremanak urrunduz eta merkantilizatuz joan dira bitartekariak sartu direnetik. Elkartasuna edo ezagutzen ez dugun hori zaintzea zailagoa da; hortaz, ekoizle agroindustrialari ez dio ardurarik bere produktuaren benetako kalitateak, eta kontsumitzen duenari ez dio ardurarik zein baldintzatan bizi den ekoizlea. Gaur egun kontsumitzaileei egozten zaie "au-

Para entenderlo con ejemplos más concretos:

- El sistema agroindustrial cambió las relaciones de las personas con el trabajo, compartimentalizándolo y categorizándolo como aquello susceptible de traer beneficios económicos. Esto supuso una mayor división sexual del trabajo y menos tiempo de trabajo compartido entre hombres y mujeres; al mismo tiempo aumentaba la carga de trabajo de las mujeres (triple jornada). Creó una mayor dependencia de las mujeres hacia los hombres, la agricultura industrial es "de hombres" y ha relegado a las mujeres a "trabajar para". El poder se centra en el dinero, por lo tanto, quien hace al trabajo productivo tiene más capacidad de decisión; al mismo tiempo se va desvalorizando todo lo pequeño, lo despacio, los saberes de las mujeres.
- Esto tiene un doble efecto, por una parte al desaparecer los trabajos y espacios colectivos crea un mayor aislamiento de las mujeres en el campo y por otra las impulsa a salir del espacio doméstico a estudiar y trabajar fuera por ser espacios donde se sienten más libres, a migrar a centros urbanos mayores.
- La relación con niñas y niños y personas mayores también se transforma. De alguna manera se los invisibiliza y se les retira las funciones que antes desempeñaban; a las mayores se las ve como una molestia por no ser productivas, no se consideran sus conocimientos o capacidades. Y a las pequeñas se les priva de esos mismos conocimientos, se desvinculan de la tierra y la alimentación.
- Estas relaciones cada vez menos integradas llevan a que no haya cabida para los cuidados y que cada vez más se externalicen. Hay un continuum que es el que las mujeres siguen haciéndose cargo de estos trabajos, antes eran de la familia, ahora son trabajadoras en condiciones muchas veces miserables. Porque si hay algo que tampoco ha cambiado es la invisibilidad y poco reconocimiento de las horas de trabajo de cuidados
- También cambiaron las relaciones interfamiliares y las maneras de ver el mundo. También ha traído nuevas formas de explotación laboral especialmente a inmigrantes trabajadoras rurales. Y esta situación se replica a nivel internacional, enfrentando a productoras de uno y otro lado en términos de competitividad.

Si algo ha salido de tanto despropósito es la capacidad de reacción del campesinado, las relaciones internacionalistas solidarias y las posiciones globales contra el sistema.

- Las relaciones con las personas consumidoras han ido alejándose y mercantilizándose con la incorporación de intermediarios. La solidaridad o el cuidado de quien no conocemos es más difícil; por lo que al productor agroindustrial le da igual la calidad real de su producto y a quien lo consume no le importan las condiciones de vida de quien produce. En nombre del "poder de elección" que hoy en día se les supone a las personas consumidoras, la alimentación se basa cada vez más en criterios estéticos y se esconde toda la información importante sobre los productos.

keratzeko boterearen” izenean, elikadura gero eta gehiago oinarritzen da irizpide estetikotan, eta produktuei buruzko informazio guztia ezkutatu egiten da.

- Naturarekin dugun harremana ere aldatu egin da. Urte asko daramatzagu ondasun naturalak aprobetxatzen eta gehiegikeriaz erabiltzen, baina agroindustriarekin, hori larriagotu eta biderkatu egiten da. Hazi egiten da; lehen sistema endogamikoak genituen, espazioak mugatutako aukerekin; eta orain, gure planeta osoa hartzen dugu eta aukerak mugagabeak direla iruditzen zaigu. Hazi egiten da ondasunen pribatizazioa eta merkantilizazioa handitu egiten direlako; etekin gehiago lortu nahi ditugulako denbora laburragoan, eta horretarako, naturaren beraren denborak estutu egiten ditugu. Eta teknologia berriek orain arteko suntsipen-mugak apurtu dituztelako ere bai.

Azkenean, naturarekiko gure harremana gero eta urrunago dago, eta gero eta maizago oinarritzen da interes ekonomiko eta merkatu-interesetan.

- Eta horrek guztiak bestelako harreman-elementu batzuetara eramaten gaitu. Dirua da ardatza, botere eta pribilegioen iturria; mugikortasun sozialerako eta metaketarako aukera gehiago daude; lehen lurra edukitzea bizi-kalitatearen erakusle zen, orain, aldiz, pobrezia. Eta urteekin beharizan berriak sortu eta diru-laguntzekiko mendekotasuna handitu da.

Mendekotasuna harreman askoren ezaugarri nagusia dela dirudi; esaterako, sargaien eta merkatuaren ekoizpenari begiratuta, erabakitzeko gaitasuna murrizten ari dira. Zer landatu esaten digute, handizka saltzen dizkigute lanabesak, denborak ezartzen dizkigute, eta horretan guztian sinesteko hezten gaituzte; gure autonomia mugatzen eta ezagutza guztiak mespretxatzen dituzten legeekin inguratzen gaituzte.

Eta horren guztiaren ondorioz, elikadurarekin dugun harremana ere aldatu egin da: orain ez dugu hain osasungarri jaten, globalago jaten dugu, azkarrago, elaboratuago, ez hain tokiko eta, batez ere, merkatuan gero eta gehiago kontsumitza eraman gaitu, ez dugu hain maiz bilatzen elikatzeko modu alternatiborik.

Gustuko ez dugun eta aldatu nahi dugun errealitatea islatzen duen diagnostiko honetan oinarrituta eraikitzen dugu gure diskurtsoa. Landa-eremuan, gure bizimodua nolakoa izatea gustatuko litzaigukeen egiten dugu amets, ausartu egiten gara.

Hori iraultzerik izango bagenu...

Si podemos darle la vuelta...

De este diagnóstico que refleja una realidad que no nos gusta y que queremos cambiar, construimos la teoría de nuestro discurso. Nos atrevemos a soñar cómo nos gustaría que fueran nuestras vidas en el campo.

- Nuestra relación con la naturaleza también ha cambiado. Ya llevábamos años de aprovechamiento y abuso de los bienes naturales, pero esto se agudiza y se multiplica con la agroindustria. Crece porque pasamos de tener sistemas endogámicos en los que las posibilidades estaban muy limitadas por el espacio a considerar nuestro el planeta y ver posibilidades infinitas. Crece también porque la privatización y la mercantilización de los bienes se incrementa; porque queremos más beneficios en menos tiempo y esto fuerza los tiempos propios de la naturaleza. Y también porque las nuevas tecnologías han venido a romper con los límites de destrucción que teníamos.

Al final nuestra relación con la naturaleza es cada vez más lejana y más basada en intereses económicos y mercantiles.

- Todo esto nos lleva a otros elementos relacionales. El dinero es ahora el centro, fuente de poder y privilegios; hay también más posibilidad de movilidad social y acumulación; antes tener tierra era sinónimo de calidad de vida, ahora de pobreza. Y con los años se han creado nuevas necesidades y dependencias hacia las subvenciones.

La dependencia parece una de las características en muchas relaciones; si miramos a la producción por ejemplo, de los insumos y del mercado está restando capacidad de decisión. Nos dicen qué plantar, nos venden herramientas a lo grande, nos imponen los tiempos, nos educan para creer en todo esto, nos invaden con leyes que limitan nuestra autonomía y desprestigian todos los saberes.

Y todo esto nos lleva a que nuestra relación con la alimentación también haya sufrido cambios: ahora comemos menos sano, más global, más rápido, más elaborado, menos local y sobretodo nos ha llevado a consumir cada vez más en el mercado y buscar cada vez menos maneras alternativas de alimentarnos.



Harremani buruz

Elkartasuna balioztat hartuta, trebetasunak sustatuko dituzten eta gabeziak taldean landuko dituzten harremanak nahi ditugu

Dibertsitatearekiko errespetuan oinarrituriko harremanak, rol guztiak errespetatu eta pertsona guztiak gai sentiaraziko dituzten harremanak; belaunaldien artean partekatzeko espazio inklusiboekin, pertsona guztiak euren tokian daudela sentitzeko.

Horren ildoan, garrantzitsua da gure eztabaidetan eta proposamenetan ere hainbat adin eta belaunalditako emakume baserriarrekiko truke eta konexioa hartzea abiapuntu; belaunaldien arteko konplizitate hori behar dugu gure proposamena indartzeko. Alde batetik, beharrezkoa da ezagutzen transmisioa ikusaraztea, balioestea eta bermatzea; eta bestetik, tokiko edo eskualdeko espazioak sortu behar dira konplizitate horiek sortzen joateko.

Elkarrizketan eta laguntza sareetan oinarritutako harremanak, familiarik tribura aldatzea ahalbidetuko digutenak. Baserriko lanak eta rolak birkokatu behar ditugu, familien osaera aldatu egin da, eta ikusi egin behar da nola birdefinitzen diren zereginak eta nola banatzen diren.

Gaur egun gertatzen diren zapalkuntzak eta esplotazioak errepikatuko ez dituzten harremanak eraiki behar ditugu. Eta arreta berezia egin behar diogu hazkuntzari eta transmititzen ditugun balioei, seme-alabak baserrirei eta ekoizpen-proiektuei atxikita, eta arauzko hezkuntzatik ere eraginez. Elkar zaintza eta erantzunkidetzak oinarri dituzten harremanak; zereginak eta lan guztiak kolektibizatuta.

Harreman horietan eta gure bizitzan hartzen ditugun erabakietan aske izateko bermea, gure gorputzei eta gure desioei buruzko erabakietan. Askatasun horiek mugatzen dituen kontrol soziala nabarmenagoa da landa-eremuan; beraz, errei-bindikazioak gogorragoa izan behar du.

Sobre las relaciones

Queremos unas relaciones que potencien las diferentes habilidades y trabajen en colectivo las carencias, desde unos valores de solidaridad

Relaciones basadas en el respeto a la diversidad donde se respeten los diferentes papeles y todas las personas se sientan útiles; con construcción de espacios intergeneracionales e inclusivos, que todas las personas puedan sentir como propios.

En este sentido, es importante tomar como punto de partida también en nuestros debates y propuestas el intercambio y la conexión con mujeres baserriarras de diferentes edades y generaciones; necesitamos de esa complicidad intergeneracional para reforzar nuestra propuesta. Por una parte es necesario visibilizar, valorizar y asegurar la transmisión de los saberes; por otra crear espacios locales y comarcales para ir tejiendo las complicidades.

Relaciones basadas en el diálogo y en las redes de apoyo, que nos permitan ir pasando de la familia a la tribu. Necesitamos resituar los trabajos baserriarras y los roles, la composición de las familias ha cambiado y hay que ver cómo se redefinen las tareas y cómo se reparten.

Entendemos que necesitamos construir relaciones que no repitan las opresiones y explotaciones que se dan hoy en día. Con especial atención en la crianza y los valores que se transmiten, vinculando a los hijos e hijas en los caseríos y proyectos productivos, así como haciendo incidencia desde la educación formal. Relaciones basadas en el cuidado mutuo y la corresponsabilidad; colectivizando las tareas y todos los trabajos.

La garantía de ser libres en estas relaciones y en las decisiones que tomamos en nuestras vidas, decisiones sobre nuestros cuerpos y nuestros deseos. El control social que limita estas libertades es más acusado en el campo, por lo que la reivindicación debe ser más fuerte.



Lanari buruz

Baserriko lanaren balio soziala aintzat hartzen duen gizartea nahi dugu, elikagai osasungarriak ekoizteak eta lurraldearen kudeaketak, kulturaren transmisioak duten garrantzia aintzat hartzen duena..

Hori dela eta, gizarte monetarizatu batean jarraitzen dugun bitartean, gure us-tez, gure ekonomien deskapitalizazioranzko bestelako aukera batzuk egon behar dute. Diruak ezin du lurra edukitzeko edo elikagaiak ekoizteko eragozpena izaten jarraitu. Laguntzen eta diru-laguntzen banaketan errotiko aldaketa behar dugu; are gehiago, bestelako lanbide funtzionarioen soldata bera proposatzen dugu nekazaritzan dihardutenentzat.

Hala ere, gure azken helburua enpleguaren murrizpen orokorra izango litzateke. Enpleguak pertsonen beharrezan araberakoak izan beharko lukete, eta ez kapitala metatzeko; beraz, askoz gutxiago lan egiteko gai izan beharko genuke, eta horrela, gure bizitzako beste alderdi batzuk lantzeko denbora gehiago izango genuke. Denbora behar dugu pentsatzeko, atsedean hartzeko, gozatzeko, harreman berri horiek lantzeko, besteak zaintzeko, gure burua zaintzeko... Lana murrizteko sistemarik asmatzen ez badugu, oso zaila izango da sektorean instalazio berriak egotea.




Sobre el trabajo

Queremos una sociedad donde se reconozca el valor social del trabajo en el campo, el valor que tiene la producción de alimentos sanos y la gestión del territorio; el valor de la transmisión de la cultura...

Por eso y mientras sigamos en una sociedad monetarizada, pensamos que tiene que haber diferentes alternativas transitorias hacia la descapitalización de nuestras economías. El dinero no puede seguir siendo una dificultad en el acceso a la tierra o la producción de alimentos. Necesitamos un cambio radical en el reparto de las ayudas y subvenciones; es más, proponemos un sueldo al igual de otros oficios funcionarios, para las personas que se dedican a la agricultura.

Pero nuestro objetivo finar sería, sin embargo, una reducción general del empleo. Los empleos deberían estar basados en las necesidades de las personas y no en la acumulación del capital, por lo tanto, deberíamos de ser capaces de trabajar mucho menos y tener más tiempo para cultivar otros aspectos de nuestras vidas. Necesitamos tiempo para pensar, para descansar, para disfrutar, para cultivar estas nuevas relaciones, para cuidar, para cuidarnos... Si no inventamos sistemas de reducción de trabajo, es muy difícil que haya nuevas instalaciones en el sector.



Elikadurari buruz

Horrek guztiak zerikusi handia du eraikitzen ari garen ekoizpen-ereduekin, bizitzari eta arlo kolektiboari loturiko ereduak izan behar dute

Ez ditugu gauza handiak eta eraginkortasuna lehenetsi behar, prozesuak eta ikasketak baizik. Hausten hain zaila den lanaren sexuen araberako banaketaren kontra borrokatu behar gara.

Baina egunez egun egiten ditugun lan ikusezin horiekin guztiekin ere zerikusia du. Denek zaintzen dugu eta zainduak izatea behar dugu; beraz, zeregin horiek erantzunkidetzan oinarrituta banatu behar dira, kolektibizatu egiten behar dira (gizartean, eta politika publikoen bidez) Gure ustez, zaintza ezinbestekoa da bizitzan, eta landa-eremuan, gainera, biderkatu egiten dira bertako baldintza bereziengatik. Gai horri garrantzi berezia ematea proposatzen dugu.

Sobre la alimentación

Esto tiene mucho que ver con los modelos de producción propia que estamos construyendo, necesitamos que sean modelos ligados a la vida y a lo colectivo

No priorizar lo grande y la efectividad, sino los procesos y los aprendizajes. Luchar contra la división sexual del trabajo que tanto cuesta romper.

Pero también tiene que ver con el resto de trabajos invisibles que realizamos en el día a día. Todas cuidamos y necesitamos ser cuidadas, por lo tanto estas tareas tienen que estar repartidas con criterios de corresponsabilidad, tienen que ser colectivizadas (en la sociedad y a través de políticas públicas). Entendemos que los cuidados son imprescindibles para la vida, y que en medio rural se multiplican por las condiciones determinadas que se dan. Proponemos darle especial importancia a este tema.

Elikadura-burujabetzaren ikuspegia zabaldu behar dugu ekoizpena eta kontsumoa ez ezik, etxeen barruan zer gertatzen den ere begiratu behar dugu: elikagaiak nola prestatzen diren, oso feminizatuta baitago lan hori oraindik. Elikadura-ohiturak ondo aztertzeak elikadura-burujabetza enpleguen prekarizazioaren kontrako borrokekin lotzera eramaten gaitu, edo sukaldean aritzea eragozten diguten militantzia-ereduak kolokan jartzera. Sistema kapitalistak elikadurarako denbora lapurtzen digu: erosketan, prestaketan eta jatordua partekatzeke unean. Horren ildoan, elikadura ere kolektibizatu egin beharko genuke.

Nekazarien borroka eta antolamendua garrantzitsuak dira, eta instantzia horietatik ere kolokan jarri behar dira botere patriarkalaren egiturak eta gure familietan, proiektuetan, sindikatuetan, erakundeetan, eta abarreetan hartzen dituen formak. Hori lortzeko, gure proposamenak begirada feminista batetik begiratu behar dira, eta bermatu egin behar dugu proposatzen ditugun nekazariei buruzko lege edo eskubide-adierazpenetan ere, eskaera feministak jasotzen dituztela.

Ezagutza transmititzeko espazioak sortzea oso garrantzitsua da, ikuspegi horizontal batekin trukatzeko espazio eta denborak.

Naturarekin ditugun harremanak ere kolokan daude; ondasun naturalak eskubidedun subjektu izatea behar dugu, betetzen duten funtzio sozial eta naturalagatik, aintzat hartu behar baita. Ekomendeko garelako ere onartu behar dugu, emakumeek egiten dugun doako lanean eta naturan oinarritzen den sistema batean bizi gara.

Elikadura osasungarrirako eskubideak unibertsala izan beharko luke, eta horretarako, beste sektore batzuekiko aliantzak behar ditugu, eta gure truke-proposamenetan aurrera egin behar dugu, esaterako, erkidegoaren laguntza duten nekazaritza-sareen bidez. Atera egin behar dugu esplotazioa gure erosketa-otzaretatik, eta hori lortzeko, bide luzea dugu aurrean... agroekologia irisgarria izatea, ekonomikoki ez ezik bai eta kulturalki eta denborari dagokionez ere, gizarte sektore guztientzat. Horretarako, politika publiko zehatzak behar dira.

Agroekofeminista izendatu dugu gure burua, eta horrek esan nahi du...

Agro proposamena ekofeminismoan txertatzeko apustua egiten dugula eta, batez ere, sektore agroekologikoan proposamen zehatzak egiteko; ikuspegi ekofeminista txertatu nahi diogu, gure ustez, bizitza erdigunean jartzeak premisa bat izan behar du elikadura-burujabetzaren aldeko borrokan.

Honakoa ez da definizio itxia, eztabaidarako gai eta testu ireki izan nahi du, izaera inklusiboarekin, apurka-apurka bestelako begiradak eta eztabaidak eta gureak baino erritmo azkar edo mantsoagoak dituzten beste emakumeak txertatuko dituen. Agroekofeminismoa prozesu bat da guretzat, ikasketarako bide

Necesitamos ampliar la mirada de la soberanía alimentaria para observar no solo la producción y el consumo sino también lo que pasa dentro de los hogares, cómo se da esa preparación de la alimentación, trabajo todavía hoy muy feminizado. Analizar de cerca los hábitos alimentarios nos lleva a unir la soberanía alimentaria con luchas contra la precarización en los empleos o a cuestionar modelos de militancia que no nos permiten cocinar. El sistema capitalista nos roba el tiempo para la alimentación: en la compra, la preparación y en el compartir el momento.

En este sentido deberíamos también colectivizar la alimentación.

Es importante la lucha y la organización campesina, y desde estas instancias también se deben cuestionar las estructuras del poder patriarcal y las formas que toman en nuestras familias, proyectos, sindicatos, organizaciones... Para esto es importante observar desde una mirada feminista nuestras propuestas, y asegurarnos que las leyes o declaraciones de derechos campesinos que proponemos incorporen las demandas feministas.

Es importante la creación de espacios de transmisión de conocimiento, de espacios y tiempos de intercambio desde una óptica horizontal.

Nuestras relaciones con la naturaleza también están en cuestión, necesitamos que los bienes naturales sean sujetos de derechos por la función social y natural tienen y que debe ser reconocida. Tenemos también que reconocernos ecodependientes, vivimos en un sistema que se basa en el trabajo gratuito que realizamos mujeres y naturaleza.

El derecho a la alimentación saludable debería ser universal, y para esto necesitamos alianzas con otros sectores, y avanzar en nuestras propuestas de intercambio por ejemplo a través de redes de agricultura apoyada por la comunidad. La explotación tiene que salir de nuestras cestas de la compra, y para eso tenemos un duro camino... conseguir que la agroecología sea accesible no sólo económicamente sino cultural y temporalmente a todos los sectores de la sociedad. Para esto son necesarias políticas públicas concretas.

Nos hemos llamado agroekofeministas y esto qué quiere decir...

Que apostamos por incluir la propuesta agro en el ecofeminismo, y sobretodo hacer propuestas concretas al sector agroecológico, queremos sumarle una mirada ecofeminista porque consideramos que colocar la vida en el centro debe ser una premisa en la lucha por la soberanía alimentaria.

Esto no es una definición cerrada, este pretende ser un debate y un texto abierto, con carácter inclusivo, que vaya poco a poco incorporando otras miradas y debates, otras mujeres con ritmos más rápidos o más lentos que los nuestros. Consideramos el agroekofeminismo un proceso, un camino de aprendizaje y que se basa en la capacidad de diálogo poniendo el énfasis en los espacios de

bat, eztabaidarako gaitasunean oinarritzen dena, pentsamenduaren eraikuntza kolektiboko espazioei garrantzia emanez. Hori izan da gure eztabaida orain arte, gure aniztasunetik eta gure homogeneotasunetik, ez ditugu botere-harremanak gure artean berregin nahi.

- Bizitza erdigunean kokatzen dugu, eta dirua eta kapitala erdigunetik kentzen ditugu. Bizitza jartzen dugu erdigunean, eta elikadura bizitzaren erdigunean. Elikadura sistema nola produzitzen eta erreproduzitzen dugun, horren arabera, gainerako izaki bizidunak zaindu edo esplotatu egingo ditugu. Beraz, harreman-aldaketa sakona eskatzen dugu; eta gure ustez, balioen eta harremanen aldaketa horrek, ezinbestean eramango gaitu sistema produktiboa aldatzera.
- Agroekologia hiru mailatan adierazten da: politika publikoetan, proiektu kolektiboetan eta proiektu indibidualetan. Eta horietan guztietan, ikuspegi feministatik eragin behar da. Horrek esan nah i du ez dugula esplotaziorik ez mendekotasunik ez botere-harremanik nahi makro eremuan, baina ez eta tokikoan ere (gure bizitzan, gure proiektuetan). Ez dugu mendekotasun harreman batean bizi nahi: lana rol eta sexuen arabera banatuta, goitik beherako erabakiak hartzea, mailak, kolokako legitimitateak... Prozesuaren baitan jakin eta ulertu behar da dena.
- Borroka horretan, ezinbestekoa da emakumeen taldeen presentzia; eskualdetan, herrietan... autoantolatua eta, aldi berean, euren proposamen eta azterketa propioak egiten dituzten mugimendu mistoetan parte hartuz. Eraikitzeko, ahalduntzeko eta eragiteko espazioak behar ditugu.
- Sektore agroekologikoan aitzindaritzako kolektibo feminista bultzatu behar dugula uste dugu, eta hori horrela izan dadin, gainerako mailetan ere formazioa behar dela ere uste dugu. Harremanetan, komunikazioan eta roletan aldaketak gertatzeak kudeatzen jakin behar diren gatazkak eta erresistentziak eta identifikatzen eta lantzen jakin behar diren konplexutasunak eragiten ditu. Proiektu kolektiboen alderdi sozial eta harremanen aldea ikusarazten eta ikusten ikasi behar dugu, gatazkak kudeatzen eta emozionalki jasangarri bihurtzen.
- Bidean, gure proiektuen eta gure gorputzen deskapitalizaziorako bestelako aukerak eraikitzen joan behar dugu.
- Proiektu agroekologikoen alderdi teknikoari ez ezik harremanei ere begiratu behar diete; eta horren ildoan, ezinbestekoa da lan guztietan erantzunkidetzaren bultzatzea, zaintzak, ezagutzen eta balioen transmisioa desfeminizatzea. Lanaren sexuen araberako banaketaren kontra eta emakumeen lanaldi hiru-koitzaren (ekoizleak, zaintzaileak, militanteak) kontra borrokatzea.
- Proiektu agroekologikoen bideragarritasun ekonomikoa begiratu behar dute, baina bai eta antolakuntzari, ekologiari eta emozioei dagokiena ere. Gure ustez arlo emozionala ere politikoa da, eta ahaldundu egin behar gara alderdi hori lantzeko.

construcción colectiva de pensamiento. Este es nuestro debate hasta ahora, desde nuestra diversidad y nuestra homogeneidad, no queremos reproducir las relaciones de poder entre nosotras.

- Colocamos la vida en el centro, descolocamos el dinero y el capital del centro. Colocamos la vida en el centro, y la alimentación en el centro de la vida. Dependiendo de cómo producimos y reproducimos el sistema alimentario, cuidamos o explotamos al resto de seres vivos. Requerimos por lo tanto de un cambio de relaciones profundo; y creemos que este cambio de valores y relaciones nos lleva sí o sí al cambio de sistema productivo.
- La agroecología habla en tres niveles, políticas públicas, proyectos colectivos y proyectos individuales. En todos ellos hay que incidir desde una perspectiva feminista. Esto qué quiere decir, que no queremos explotación, dominación ni relaciones de poder en el nivel macro pero tampoco en el local (en nuestras vidas, en nuestros proyectos). Queremos vivir vidas libres de relaciones de dominación: reparto de roles y trabajos por sexo, toma de decisiones verticales, rangos, legitimidades cuestionadas... Sabiendo y entendiendo esto en clave de proceso.
- En esta lucha consideramos necesaria la existencia de grupos de mujeres, por comarcas, por pueblos... autoorganizadas y participando a su vez en movimientos mixtos que realizan sus propias propuestas y análisis. Necesitamos de espacios de construcción, empoderamiento e incidencia.
- Creemos que hay que impulsar el liderazgo colectivo feminista en el sector agroecológico, y también que hace falta formación a diferentes niveles para que esto sea posible. El cambio en las relaciones, en la comunicación y en los roles trae consigo conflictos y resistencias que hay que saber gestionar, complejidades que hay que saber identificar y trabajar. Tenemos que visibilizar y aprender a ver también la parte social y relacional de los proyectos colectivos, gestionar los conflictos y hacerlos sostenibles emocionalmente.
- En el camino debemos ir construyendo alternativas transitorias para la descapitalización de nuestros proyectos y de nuestros cuerpos.
- Los proyectos agroecológicos deben mirar no sólo a la parte técnica sino a la relacional, en este sentido es imprescindible impulsar la corresponsabilidad en todos los trabajos, desfeminizar los cuidados, la transmisión de conocimientos y valores. Luchar contra la división sexual del trabajo y la triple jornada de las mujeres (productoras, cuidadoras y militantes).
- Los proyectos agroecológicos tienen que mirar a la viabilidad económica, pero también a la organizativa, ecológica y emocional. Entendemos que lo emocional también es político y que hay que empoderarse y trabajar este aspecto.
- Los propios proyectos y la sociedad deben reconocer el valor social de la producción de alimentos y de los saberes que envuelve. En este sentido apostar

- Proiektuek eurek eta gizarteak berak ere onartu egin behar dute elikagaien ekoizpenak eta horren inguruan dauden ezagutzek duten balio soziala. Horren ildoan, ezagutza partekatuko formazioaren aldeko apustua egin behar da, transmititzeko moduari garrantzia emanez, trukerako espazioak sortzea...
- Baserri inguruetan bizia eraikitzen ari gara, bizitza bizigarriak eta duinak, eta baserrira itzultze horretan, garrantzitsua da adierazpen askatasuna eta dibertsitateak bermatzea. Hori ezin da egin sexu dibertsitateari buruz hitz egin gabe.
- Gainerako emakume guztiek pairatzen dituztenez gain, emakume baserritarrek pairatzen dituzten indarkeria espezifikoak ikusaraztea ezinbestekoa da; ikusaraztea eta indarkeria horien kontra borrokatzea.
- Emakume Nekazariaren Estatutua garatzeko eskaeren, Titulartasun Partekatuaren Legearen inplementazioaren, emakumeen eskubideak Nekazarien Eskubideen Adierazpenean jasotzeko borrokaren berri eman behar dugu.
- Badakigu prozesua luzea, konplexua eta oztopoz betea izango dela. Beraz, pentsamendu irekia eta sormenez betea behar dugu proposamenak egiteko, gehitzen joateko eta beste sektore batzuekin aliantzan jarduteko; bide hau elkarrekin eraikitzen jarraitzeko.

por formaciones de conocimiento compartido, dando importancia al cómo se transmite, crear espacios de intercambio...

- Estamos construyendo vida en el campo, vidas vivibles y dignas, en esta recampesinización es importante garantizar las libertades de expresión y las diversidades. Esto no se puede realizar sin hablar de diversidad sexual.
- Es imprescindible visibilizar las violencias específicas que sufren las mujeres baserritarras, sumadas a las violencias de todas las demás mujeres; visibilizar y luchar contra estas violencias.
- Nos hacemos eco de las demandas para el desarrollo del Estatuto de la Mujer Baserritarra, la implementación de la Ley de Cotitularidad, la lucha por la incorporación de derechos de las mujeres en la Declaración de Derechos Campesinos.
- Entendemos este proceso largo, complicado y lleno de obstáculos. Por lo tanto necesitamos una mente abierta y creativa para lanzar propuestas, sumar y aliarnos con otros sectores; para seguir construyendo juntas este camino.

Diskurtso propio feminista eta baserritarra bultzatzen dugu, Etxalderi nahiz gizarteko beste sektore batzuei harreman bidezko eta parekideagoak sortzeko gakoak emateko.

Emakume baserritarrek Elikadura-burujabetzaren eta agroekologiaren inguruan dituzten eskubideen eta interesen defentsarako espazioa sortzea.

Emakume nekazariak sektoreko espazio mistoetan eragin eta parte-hartzeko gaitasuna handitzea.

Emakume baserritarrentzat laguntza-tresna praktikoa eta politikoa izatea, bai eta borroka feministarako lagungarri ere.

Gure jardueraildoak

Aumentar la capacidad de incidencia y participación de las mujeres campesinas en los espacios mixtos del sector.

Ser una herramienta de apoyo práctica y política para las mujeres campesinas y de apoyo a la lucha feminista.

Nuestras líneas de actuación

Conformar un espacio de defensa de los derechos e intereses de las mujeres baserritarras en torno a la Soberanía alimentaria y la agroecología.

Fomentar un discurso propio feminista y campesino que pueda aportar tanto a Etxalde como a otros sectores de la sociedad claves para unas relaciones más justas y equitativas.

Lanerako ardatzak

Etxaldeko Emakumeak taldean uste dugu ardatzik nagusiena formazioa eta elkar laguntza dela

Horregatik bultzatzen ditugu taldearentzat berarentzat eta parte hartu nahi duten emakume baserritarrentzat interesgarriak diren formazio eta eztabaidaguneak. Batzuek buruari bueltak eragiten dizkigute (komunikazioa, ahalduntzea) eta beste batzuek eskuei (tresnak nola maneiatu eta konpondu, auzolanak...); eta azkenean, denek laguntzen dute pertsona eta talde gisa hazten.

Emakumeek pairatzen dugun indarkeria-egoerak eta diskriminazio mota askotarikoek kezkatzen gaituzte, baserri-eremuan batez ere, gutako askorentzat ez delako erraza laguntza eta salaketarako espazioetara jotzea. Hori dela eta, martxoaren 8aren eta azaroaren 25aren inguruko erreibindikazio eta borroka unean alde egiteaz gain, landa-eremuetan emakumeen kontrako askotariko indarkeriak errotik desagerrarazteko lan egitea dugu xede.

Emakume baserritar garen aldetik, diskurtso eta jardun feminista eta baserritar propioa eraikitzea da gure helburuetako bat: ahaldunduko gaituen diskurtsoa, alegia, espazio mistoetako parte-hartzea hobetzen lagunduko diguna eta, Etxalden eta La Vía Campesinaren baitan, nahiz hiriko mugimendu feministetan ekarpenak egitea ahalbidetuko diguna. Hori dela eta, Euskal Herrian eztabaidagunea sortu nahi dugu, elikagaien ekoizpenarekin lotuta gauden hainbat emakume elkartu eta elkarrekin eraikitzen hasteko.

Badakigu elikadura-burujabetza nahiz feminismoak proposatzen duen paradigma-aldaketa beste mugimendu batzuekiko aliantzan soilik lor daitekeela; eta horretarako, La Vía Campesinako Emakumeen Batzarra, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa, Bilgune Feminista, Mamiki, Ekonomia sozial eta solidarioa eta beste mugimendu feminista batzuk berezko aliatutzat ditugu, eta horiekin eraiki nahi dugu bidea.

Astiro goaz, gure erritmoak eta gure espazioak aurkitzen, partekatzen eta ikasten. Prozesu honetan eztabaida asko daude egiteke, beste batzuk hasi eta amaitu gabe utzi ditugu... beraz, aurkezpen hau dokumentu bizia da, denon artean elikatu ahala hazten eta hobetzen joango dena.

Ejes de trabajo

En Etxaldeko Emakumeak creemos que uno de los ejes importantes tiene que ser la formación y el apoyo mutuo.

Por eso promovemos espacios de debate formación de interés para el propio grupo y para las mujeres baserritarras que quieran participar.

Algunos nos hacen darle vueltas a la cabeza (comunicación, empoderamiento...) y otros a las manos (cómo manejar y arreglar herramientas, auzolanak...); al final todos nos ayudan a crecer personal y colectivamente.

La situación de violencia y múltiples discriminaciones que sufrimos las mujeres es una cuestión que nos preocupa, especialmente en el mundo rural, donde muchas mujeres tenemos difícil acceso a espacios de apoyo y de denuncia. Es por ello que además de apoyar los momentos reivindicativos y de lucha en torno al 8 de marzo y 25 de noviembre, aspiramos a trabajar para erradicar las diversas violencias contra las mujeres en los espacios rurales.

La construcción de un discurso y práctica feminista y campesina propio es un horizonte al que aspiramos como mujeres baserritarras, un discurso que nos empodere, que nos permita mejorar nuestra participación en los espacios mixtos y poder aportar tanto a Etxalde como a La Vía Campesina, como a los movimientos feministas más urbanos. Para ello aspiramos a crear un espacio de debate a nivel de Euskal Herria entre mujeres diversas relacionadas con la producción de alimentos donde encontrarnos y construir juntas.

Sabemos que tanto la soberanía alimentaria como el cambio de paradigma que plantea el feminismo solo puede ser conseguido en alianza con movimientos diversos, por ello consideramos a la Asamblea de mujeres de La Vía Campesina, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa, Bilgune Feminista, Mamiki, la Economía social y solidaria y otros movimientos feministas como aliadas naturales con las que construir este camino.

Vamos despacio, buscando nuestros ritmos y nuestros espacios, compartiendo y aprendiendo. En este proceso hay muchos debates que tenemos pendientes, otros que tenemos a medias... por lo tanto esta presentación se asume como un documento vivo que irá creciendo y mejorando a medida que lo vayamos alimentando entre todas.





Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gastronomia eta Kirol Departamentua



Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

